




Eraikuntza bi zatitan banatzen da bakoitza maila batean geratzen delarik. Goiko maila 63,09 metro koadroko azalera, (artista, enpresak eta beste biltzeko tokia) eta artxibo grafiko-koa dauden gunea da. Beheko mailan berriz, 192,68 metro koadrotan bi lan gune eta artelan handientzako biltegia egongo litzateke. Asmo nagusia eraikina naturarekin bat egitea da. Horregatik proposamena eraikin bioklimatiko bat garatzea da. Eguzkitiko kokapena eki hegoaldekoa izanik lehio nagusiak eki hegoalderantz jarriak izango dira. Estalkiak belarrarekin egingo direnez, batetik lurriari kentzen dizkiogun metro koadroak bueltatzen zaizkio eta bestetik, eraikinaren isolamendua guztiz naturala eta eraginkorra denez, tenperatura aldaketak murrizten ditu (beste abantailen artean). Kalefakzioa biomasaz egingo da. Estudioak ez du inongo inguru gaineko eraginik, eta esan bezala, eraikitze prozesuan lehentasuna bertan dauden zuhaitzei emango zaie. Kontutan hartu behar da baita ere lur mugimendu lanak ez direla egin behar (axaleko moldaketak salbu). Eraikuntzaren kokapenak, kultura, eta artearekin bereziki, bat dator; Funtsezkoa baita naturak erakusten dizkigun egunero-ko pauso txikiak, aurrera egingeko. Bestalde, eraikuntzaren bi atalak, bata abestearen gainean dauden egurrezko 2 kaxa baliran irakurriko dira, esan bezala, leiho nagusiak eki hegoalderantz jarriak izango direla.

**Irizpide Konstruktibo eta teknikoak:**

Eraikin berria, 1976an Jose Luis Zumetak Zeramika Estudioa egiteko eraikitzen hasitako zimentazioa oinarri hartuta garatuko da. Egun dagoen zimentazioa, 3 solairutako azalera handiagorako pentsatuta zegoen eraikin batentzako egina dagoenez, orain planteatzen den 2 solairutako eraikuntzaren oinarri izateko ez du inongo arazorik (ikus 02 planoak). Zimentazioa, luzerako zapata baten bitartez garatzen da, eta lursailak egun dituen 2 nibel ezberdinek sortzeko, hormigoio armatuz egindako euspen-horma dugu, eraikin berriak behar duen ezaugarriak luze betetzen dituelarik. Zimentazio honen ganean, Termoarzellako euspen hormak altxatzen dira kutxa bien fatxadak osatuz. Horma hauek ganean xallatutako egurrez osatutako habeak kokatzen dira, 2 eraikinen estalkiak osatuz. Estalkia, lehen esan bezala belarrak estaliko dira, (ikus 20. planoak). Euste horma hauek, kanpoetik egur tarimaz estaliko dira, naturan kokatutako egurrezko 2 kaxa izan balira bezala. Azal honen eta euste horma tartean isolamendua garatuko da, aire kamara eta poliestirenoa ezarritik. Barnealdera Igeltzuztatu egingo da, hau margotuz. Barneko hormak adreiluz egindakoak izango dira, (matxetoia edo tabikoia) lekuan arabera, eta raseoa barne 10-12cm tako zabalera izango lukete. Kanpoko harrozeria egurrezkoa izango da, eta kristalak "Klimalit" modukoak. Barneko harrozeria ere egurrezkoa izango da. Beheko solairuaren zoria, hormigoio armatuz egindako leundutako solera izango du. Lehen solairuan aldiz zoriak egurrezko tarima-flotantez egingo dira. Komunitetako paretak azulejatu, eta lurrak baldosatu egingo dira. Erabiliko diren material guztiak, lehen kalitatekoak izango dira, eta soluzio konstruktiboak Eraikinaren Kode Teknikoarekin bat etorriko dira.

# ZUMETA ARTE ESTUDIOA



- 60. Hanarkadan José Luis Zumeta Etxeberriak (Usurbil, 1939), pintura jorratzen zuela eta, eskulurrekiko bere interesa handiagotzen joan zen. Urte laietan interes horrek materialak ausartzeri eraman zuen: goma, egurra, metala eta keramika batez ere. Honeka, 1974an keramikazko mural handiak egiteari ekin zion. Hurrela burutu ziren Usurbilgo frontoiaeren atzekaldeko murrak, Pasaia Portuko eta Zarautzen egindako kaleko keramika eskultura. Behin bere lan artistikoak bide hori hartuta, beste proiektu batzuk aurreratu ziren eta estudio egoki baten bila, Txiki-erdi auzoko lursail txiki bat erosteko aukera sortu zitzaion. Usurbilgo Udal batzordeak 1.976an Txiki-Erdi auzoan sutsatutako keramika estudioa burutzeko erabakia hartu zuen. Eraikina, garaiko bere arte lanaren dimentsiotara egokitu zegoen. Lur mugimenduari, zimentatze lanak, eta lurrak eusko hormak egin ondoren, hainbat arazo medio, ez zen gehiago eraki. Gainera, jakina den bezala, bere ibilbide artistikoa azkenik pinturara zuzendu zuen eta urte batzuk berandugoa arazo personalengatik lursail salteko beharra izan zuen. Lursaila Julien Arregi erosi zuen eta 1.993an Udal Batzordeak *Kulturalekuko* arabaketa estudio bat erabiltzeko baimena eman zuen, azkenik ere, gauzatu ez zena. 2007an biziaren bueltan, berriro ere Txiki-erdi auzoko lursail hura berreskuratzeko aukera suertatu eta Usoa Zumeta eta José Luis Zumetak erosi zuten.

